

Martintxo eta Parrats

Itsasontziak beladunak eta soilik haizearen indarrak bultzatuak zirenean eta mundua gaur baino gazteagoa zenengan, kostaldeko muino berdetuek zaintzen zituzten itsasoko ur apar zuri eta zurrumbilo urdinak.

“Tolarezar” baserria haietako muino gaina batean kokaturik zen. Bertatik, iparralderantz behatuz, itsasoaren zabalera amaigabea hedatzen zen. Hegoaldera, haran estuetan, larre eta aldapetako sagastiek batzen zituzten kresala usainaren gazitasuna.

Pausu seguruak emanaz, gizon bat estrata ez lar zabaletik gora zen baserri aurreraino. Larruzko botak eta buruan kapelu zabala. Aurpegia itsasoko haizeak beltzitua eta sasoi hartan itsasgizonek zuten bizar dotorea. Esku sendoak, ekaitza pean ontziko lema eramatera ohituak.

– Egun on etxekoei eta Bartolome Deunak babes zaitzate! –oles bezala oihukatu zuen etorri berriak. Eskuak aldaketan jarrita agurraren erantzun zain mantendu zen.

Joan Baptistak, etxeko jaunak, zurezko ate irekitik burua ageri zuen. Aspaldiko hamar urtetan ez zegoen etxekoandrerik gaisotasunak jota hil zelako. Bisitariaren aurpegia atoan ezagutu zuen aspaldiko lagun bezala eta irria atera zitzaion erantzun aurretik:

– Baita zuri ere, Lartzabalgo Iñigo Otsoa kapitaina.

Gizon biak besarkatu ziren lagun zaharrek egiten duten tankeran. Etxeko jaunak barrura eramane zuen etorri berria eta sukaldeko mahai inguruan bildu ziren.

– Agindu nizun bezala hemen nauzu, Joan Baptista nere laguna, zure sagardoa nire ontzian eramateko enkargua egitera natorkizu-eta.

– Ederki kapitaina, baina tratua burutu aurretik mesede bat bihotzez eskertuko nizuke.

Iñigo Otsoa kapitaina adi zen lagunaren hitzen zain.

– Hemen duzu nire semea, Martintxo. Hamabi urte, bizkorra oso, eta zurekin itsarotzea gustatuko litzaidake. Gazte trebea eta zuhurra duzu, kapitaina, ez dizu hutsik egingo.

– Eta zer duk honi esateko, mutiko? –itaundu zion kapitainak.

Etxeko gaztea, Martintxo, luzea eta mehea zen. Ile endredatu beltzarak aurpegi zuria areagotzen zioten. Begi itsaso kolorekoak, masailak lotsaz arrosaturik galderarekin.

– Berorren aginduetara izango nau, jauna... kapitaina.

Kapitainak farre egin zuen eta mutikoaren ileak gehiago endredatu. Bai, berarekin eramango zuen hurrengo bidaiari iparraldeko Itsas-zurian baleak ehizatzen. Sendotu egingo zitzaion gorputza eta aita bezain gizon mardula bihurtuko zen, hala ikusten zuen.

Udak udagoienari utzi zion tokia. Sagarrondoek fruiten pisuek adaxkak tolesturik zituzten. Iraileko haize epelak sagarrak laztandu zituen. Laister helduko ziren fruituak eta lur zorura eroriko. Eta zorutik bilduak izango ziren edari horia lortzeko.

Joan Baptista aitak eta Martintxo semeak Luken Deunaren egunean hasi eta Sanmartinak arte, otarrea eta kizkia eskuetan, banan-banan batu zituzten sagar gazi-gofoak.

Baina gizakiak ohartu gabe, zerbaiz berezia gertatu zen urte hartako uztarekin.

Ekialdeko sagasti aldamenen baso ilun eta ezkutua mantentzen zen isilean. Toki baztertu hartan Parrats izeneko deabrua bizi zen. Oin-erdia tamainuz, maltzurkeriaz handia.

Udazkeneko airea sagar helduen lurrinez bete zen. Basoa atzean utzi eta baserriko sagastietara bideratu zituen Parrats-ek pausu arin eta azkarrak, ummm, sagar gofoak jatera!

Aita eta Martintxo lanean ziren eta Parrats deabrua, sabela ondo aseturik, lotan zen zoruko sagarren artean etzanik. Kiribilduta animalien antzera, ez zitzaion gorpu txikia ikusten.

– Ai, ai, ai! – mutikoaren kizkiak ipurdia ziztatu zionean eta otarre barruan izan zenean.

Lanean zirenek ez zuten ezer entzun eta lanari ekin zioten. Fruituak dolarera eramane eta sagarrak jo eta zanpatu zituzten: muztioa tinian bildu eta ondoren upeletara pasatu.

Parrats deabruak, gorpua mailaturik oro, soberako lana zuen ahalik eta hoberen kolpe guzti haiek saihesteko. Eta kolpeen ondoren ihesari ekin baino lehenago, kupel barnean ikusi zuen buru propioa. Ezin atera sagar muztioak pisu handia zuelako kupeltzarrean.

Done Sebastian igarota zen Iñigo Otsoa kapitaina itzuli zenean. Idi-gurdia zekarren eta 15 arreak hiru kupel kargatu eta Martintxok aita agurtu ondoren, muino gainetik itsasertzean zen herriko portura abiatu ziren. Ez zekiten haietako kupel batetan Parrats zegoenik.

Portuan beladun hiru ontzi kulunkatzen ziren. Iñigo Otsoarena zen ederrena. Bi masta luzez, haritz enborrez eginak, haizea bilduko zuen oihal marduleko bela karratueetan.

Trebeziaz gidatuko zuen kapitainak iparraldeko urrutiko uretan baleak bizi ziren tokiraino. Bidai luzea –joan-etorria hiruzpalau hilabetekoa-edo– ontziko 22 gizonentzat. Martintxo ontziko txo bezala arituko zen.

Ontzian, marinelek ez zuten apenas deskantsatzeko unerik.

Kostaldea begibistatik galduta haizea batu behar zuten, olatuak saihestu, korronteak gobernatu, ontzi barneko hamaika lan burutu. Egunak pasa ahala, ontziko txo gaztea seguruago sentitzen zen eta bizkorrago egiten zituen manatu guztiak.

Bai, kapitainak ongi ikusi zuen gatzetxoak barnean zuen kemena. Marinela iaioa izango zen. Agian, kapitaina izatera iritsiko litzateke, batek jakin.

Egunak asteetan luzatu ziren eta haizea gero eta hotzagoa zen. Itsasoko laino zuriek olatu handien gainean geldirik antzematen zuten. Azkenik, heldu ziren ehiza tokira.

Ehizatu zuten lehen balea eta lanaren hasiera baino ez zen. Balea zatitu eta koipea urtu olio preziatua lortzeko. Marinela –Martintxok ikasi zuenez–, arraunlariak, ehiztariak eta harakinak ere baziren.

– Aizak Martintxo, ekartzak gizonentzako sagardo pitxer batzuk.

– Bai, kapitaina. Berorrek agindu bezala –eta korrika jaitzi zen ontziko sotora.

Martintxok txotxa atera aitaren baserritik ekarritako lehenengo kupelari –pitzerra posizio egokian jarrita zuela– eta lehen sagardo txinpartekin batera Parrats deabru txikia ageri zen. Kupelatik kanpo azkenik, asper-asper eginda zen han barruan izateaz!! Bapatean desagertu zen zalapartatsu ontziko sotoaren izkina ilunetatik barna.

Parrats-en larrua, berez sagar berdearen kolorekoa, oraingoan sagardoaren urre-koloreaz tindaturik zen hainbeste denboratan kupel barruan izanik.

Gaztea Iñigo Otsoa kapitainarengana korrika abiatu eta aparteko solasaldian esan zion:

– Kapitaina, deabru txiki-horia atera da kupel batetik, jauna!!

Kapitainak gertatutakoa sekretu pean mantentzeko –marinelak ikara ez zitezen– eta lehenbailehen harrapatu behar zutela erantzun Martintxori, aurpegi oso serioa jarritz.

Ondorengo egunetan gauzak ez ziren batere ongi burutu: bigarren balea ehizatzerakoan huts egin zuten; bi gizon kareletik erori –norbaitek bultzatuta-edo– eta ia gelaturik atera zituzten itsasotik; sukaldariak, tresnak tokiz aldatuta eta batzuk hautsita aurkitu zituen; ontzian zeramaten sagarrez beteriko kupelari norbaitek gauerdiko bisitaldiak egin eta sagar muskilak uzten zituen; ontziko arotza kexa zen mailu astuna eta zerrote handia desagertu egin zitzaizkiolako; gauean piztuta zituzten kriseiluak amatatu egiten ziren eta farretxo antzerakoa entzuten zen; kapitainaren botak desagertu eta masta nagusiko puntan eskegirik agertu ziren.

– Kapitain jauna, uste dut, jakin badakidala nola harrapatu deabru bihurri hori.

– Hara, adi eta zur nauk hire plana zein den entzuteko, Martintxo. Esaidak, gazte.

– Berorren baimenarekin, kapitaina. Deabru horrek sagarrak gogoko ditu; etzanik dagoen kupel hustu baten ahoan jarriko ditut sagar gozoenak amu bezala eta jatera hurbiltzen denean, dzast! barrura sartu eta oholezko tapa josiko dut. Untxia bezala harrapatuko dut.

Esan eta ekin. Gau hartan, ontziaren kubiertan, sagar gorri usaintsuenak jarri zituen kupel txiki baten ahoan. Martintxo eta kapitaina txalupen artean erne eta isil zelatan ziren.

Ilargi betea ortzian, Parrats deabrutxo sugandila bezala hurbildu zen sabela kubiertako oholen gainean narrastaka. Gazteak eta kapitainak dena ikusten zuten ezkutalekutik eta Parratsek –eroso-eroso eta patxadaz– sagar gorri handienari lehen hozkada eman zionean, jauzi azkarra eginez, kupelaren barrura bultzatu zuten deabru horixkatua.

Kupelaren tapa burni sendozko iltzeek josi eta kupela kareletik itsasora bota zuten. Lizar oholez egindako kupela baitzen eta deabruak ezin dute lizarraren zura hautsi.

Parrats deabruaren oihuak, biraoak eta hitz gordinak oholen arteko pitzaduretatik ateratzen ziren traka-matraka batetan.

Oraindik iparraldeko Itsas-zurian entzuten direla esaten omen dute baleazaleen istorioak kontatzen dituztenek “Tolarezar“ baserriaren etartean sagardo doratua edanez. Txotx!